

P. P. FRANCISCANOS



PASEO DE ATOCHA  
TELÉFONO 1-36-23  
SAN SEBASTIAN

1954'ko VIII garrenak 6

Pierre Lafitte apaiz jaunari  
Ustaritz'a

Lagun eta maixu agurgarria: Pake ta On.

Zurea jaso dut. Bai ondo berandu. Alajaña, zazpi egun bear izan ditu kartak Ustariztik Donostiratzeko edo beintzat nere eskuetaratzeko. Milla esker, euskal-idazlarien batzarrerako egin didazun dei maitatigatik. Baña, dakuzenez, alperrik izan da. Zure lei ta deia betetzerik ezin izan dut. Beraz, atzo zenuten biltzarra; ta eskutitza gaurxe nik artu.

Bestalde, A. Zaloña illa da; A. Basilio Gerra Kuba'n duzu; ta A. Villasante, aldiz, Alemanira darama'rako, joana.

Urrutien gañetik eta, batez ere, Bidaso gaiztoaren gañetik, nere agurrik eta bosteko'rik estuena igortzen dizut ANAIKIRO eta aspalditik zor dizudan ESKERRONEZ.

Yesu'gan anai eta lagun, zure aginduen zai

*Sabastian Mitxelena*